## JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA

### Estatutuen aldaketa. Behin betiko onespena

Jurramendiko Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 2016ko ekainaren 3an egin bilkura arruntean, legezko quoruma izanik eta aho batez, erabaki zuen, besteak beste, hasiera batean onestea Mankomunitatearen estatutuak aldatzeko proiektua.

Jendaurreko epea inork erreklamaziorik edo eragozpenik aurkeztu gabe iragan zen, eta Batzar Orokorrak, 2016ko azaroaren 25ean, behin betiko proiektua onetsi zuen estatutuak aldatzeko.

Nahitaezko txostena igorri zitzaion Nafarroako Gobernuari. Urtarrilaren 16ko txostena aurkeztutako proiektuaren aldekoa da.

2017ko azaroaren 24ko batzar orokorrean jakinarazi zen bezala, udalen osoko bilkurek onetsi zuten Jurramendiko Mankomunitatearen estatutuak aldatzeko proiektua, legezko quoruma izanik eta proposatutako testuarekin. Honako honetan argitaratzen da aldaketa.

Espedientearen arabera, Mankomunitateko 63 udalerrietatik, 46 udalbatzak onetsi zuten mankomunitatearen estatutuen aldaketa. Honako hauek, hain zuzen ere: Abaigar, Abartzuza, Aberin, Allin, Allo, Ameskoabarren, Andosilla, Aranaratxe, Arellano, Armañantzas, Arroitz, Aiegi, Azagra, Barbarin, Bargota, Desoio, El Busto, Esprontzeda, Lizarra, Eulate, Gesalatz, Iguzkitza, Lana, Larragoa, Elizagorria, Lerín, Lezaun, Lodosa, Lukin, Mendaza, Metauten, Mirafuentes, Morentin, Mues, Murieta, Nazar, Jaitz, San Adrián, Santsol, Sesma, Sorlada, Torres del Río, Viana, Villamayor de Monjardín, Villatuerta eta Deierri.

Lizarran, 2017ko abenduaren 20an.–Mankomunitateko burua, M.ª Victoria Sevilla Marzo.

#### JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK. ALDAKETAREN TESTU OSOA

Mankomunitatearen estatutuen 4.d) artikulua aldatzen da.

Testu berria:

"Hona hemen Mankomunitatearen xedeak:

(...)

d) Tokiko zerbitzu publiko hauetariko batzuk (edo guztiak) egitea:

–Hirigintzako antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; babes publikoko etxebizitzen sustapena eta kudeaketa; eta eraikinen kontserbazioa eta birgaitzea.

–Ondare historikoaren eta hiri-ingurumenaren babesa eta kudeaketa.

–Feriak, elikagaien hornidura, hiltegia, azokak eta merkataritza ibiltaria.

–Hilerriak eta ehorzketa zerbitzuak.

–Uraren ziklo integralari lotutako guztia: hornidura, banaketa, saneamendua, estolderia eta arazketa.

–Osasungarritasun publikoaren babesa, hondakinen kudeaketa eta bideen garbiketa.

–Bide-azpiegitura eta beste ekipamendu batzuk.

–Argiteria publikoa eta hiri-garraio kolektiboa.

–Premiako gizarte-egoeren ebaluazioa eta txostenak, eta gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta.

–Interesa duen tokiko jarduera turistikoaren informazioa eta sustapena.

–Kirolaren, kirol instalazioen eta aisialdiko jardueren sustapena, bai eta kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena ere.

–Derrigorrezko eskolatzearen zaintza (beste batzuekin batera), eta hezkuntzako administrazioekiko elkarlana ikastetxe berriak eraikitzeko orubeak erdiestearren. Ikastetxeen tokiko titulartasuneko eraikinen kontserbazioa, mantentzea eta zaintza Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian.

–Informazioaren eta komunikazioen teknologien sustapena, herritarrek modu eraginkor eta jasangarrian erabil ditzaten."

L1800502

## JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA

### 2018ko aurrekontua. Behin betiko onespena

Jurramendiko Mankomunitateak, 2017ko azaroaren 24an egin batzar orokor arruntean, besteak beste, entitatearen 2018ko aurrekontu orokor eta bakarra hasiera batean onesteko erabakia hartu zuen.

Aipatu erabaki hori 2017ko 241. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 19an, eta entitatearen iragarki oholean hamabost egun baliodunean egon zen, interesdunek hura aztertu eta egokiak iruditzen zitzaizkien erreklamazioak egin zitzaten.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 202.1 artikuluari jarraikiz, epe hori iraganik eta inork ez alegaziorik ez erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsirik gelditu da eta bidezko da laburturik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikulua, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen bidez aldatua).

Lizarran, 2018ko urtarrilaren 12an.–Mankomunitateko burua, M.ª Victoria Sevilla Marzo.

| MONTEJURRA, SAREN ZERBITZUAK | 2018KO AURREK. | 2017KO AURREK. | ALDAKUNTZA 2018KO EKITALDIAN | ALDAKUNTZA, URA | ALDAKUNTZA, HHS |
|---|---|---|---|---|---|
| NEGOZIOEN ZENBATEKO GARBIA | 9.227.852 | 8.833.014 | 394.838 | 173.540 | 221.298 |
| Salgaien salmentak | 131.500 | 112.000 | 19.500 | 7.000 | 12.500 |
| Zerbitzuak ematea | 9.096.352 | 8.721.014 | 375.338 | 166.540 | 208.798 |
| HORNIKUNTZA | -1.880.784 | -1.892.445 | 11.661 | -19.638 | 7.977 |
| Salgaien kontsumoa | -418.797 | -507.165 | 88.368 | -86.368 | -2.000 |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | -1.461.987 | -1.385.280 | -76.707 | 66.730 | 9.977 |
| USTIAPENAREN BESTE DIRU-SARRERA BATZUK | 628.404 | 748.417 | -120.013 | -100.013 | -20.000 |
| Diru-sarrera osagarriak eta beste batzuk | 613.404 | 596.427 | 16.977 | 16.977 | 0 |
| Ustiapenaren diru-laguntzak | 15.000 | 151.990 | -136.990 | -116.990 | -20.000 |
| LANGILERIA GASTUAK | -4.927.484 | -4.744.709 | -182.775 | 73.622 | 109.153 |
| USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK | -2.562.582 | -2.481.483 | -81.099 | 34.973 | 46.126 |
| Kanpoko zerbitzuak | -2.546.482 | -2.465.383 | -81.099 | 34.973 | 46.126 |
| Tasak eta bestelako zergak | -1.100 | -1.100 | 0 | 0 | 0 |
| Horniduren aldakuntzak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | -15.000 | -15.000 | 0 | 0 | 0 |
| IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA | -465.012 | -451.279 | -13.733 | -4.694 | 18.427 |
| IBILGETUKO DIRU-LAGUNTZAK EGOZTEA | 44.966 | 60.035 | -15.069 | 5.686 | -20.755 |
| USTIAPENAREN EMAITZA | 65.360 | 71.550 | -6.190 | 5.050 | 1.140 |
| FINANTZA DIRU-SARRERAK | 0 | 50 | -50 | -50 | |
| FINANTZA GASTUAK | -65.360 | -71.600 | 6.240 | -6.240 | |
| FINANTZA EMAITZA | -65.360 | -71.550 | 6.190 | -5.050 | -1.140 |
| 2018ko EKITALDIKO EMAITZA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

| SERTECMA SL | AURREK. 2018. URTEA | AURREK. 2017. URTEA | 2018ko ALDAKUNTZA |
|---|---|---|---|
| NEGOZIOEN ZENBATEKO GARBIA | 310.507,00 | 321.900,00 | -11.393,00 |
| USTIAPENAREN BESTE DIRU-SARRERA BATZUK | 220.247,00 | 202.309,00 | 17.938,00 |
| LANGILERIA GASTUAK | -495.807,00 | -488.476,00 | -7.331,00 |

| SERTECMA SL | AURREK. 2018. URTEA | AURREK. 2017. URTEA | 2018ko ALDAKUNTZA |
|---|---|---|---|
| USTIAPENAREN BESTE GASTU BATZUK | -32.985,00 | -34.015,00 | 1.030,00 |
| IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA | -1.962,00 | -1.718,00 | -244,00 |
| USTIAPENAREN EMAITZA | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| FINANTZA DIRU-SARRERAK | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| FINANTZA GASTUAK | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| FINANTZA EMAITZA | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 2018ko EKITALDIKO EMAITZA | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

| JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA | PARTIDA | JMKO 2018.KO AURREK. | JMKO 2017.KO AURREK. | 2018KO ALDAKUNTZA |
|---|---|---|---|---|
| **GASTUAK** | | | | |
| GOBERNU ORGANOAK | 9120 | 3.680 | 3.260 | 420 |
| ADMINISTRAZIO OROKORRA | 9200 | 629.692,00 | 608.772 | 20.920 |
| UR HORNIDURA | 1612 | 6.047.991,00 | 6.638.712,00 | -590.721,00 |
| UREN ARAZKETA | 1602 | 2.137.219,00 | 1.568.030,00 | 569.189,00 |
| HIRI HONDAKINEN BILKETA | 1621 | 1.630.824 | 2.442.796,00 | -811.972,00 |
| HIRI HONDAKINEN TRATAM. | 1623 | 80.725 | 191.975 | -111.250 |
| KALEAK ZOLATZEA | 1532 | 680.000 | 311.000 | 369.000 |
| 2018ko EKITALDIKO GASTUAK, GUZTIRA | | 11.210.131,00 | 11.764.545,00 | -554.414,00 |
| **DIRU-SARRERAK** | | | | |
| UR ZERBITZUA | | 8.818.582,00 | 8.818.774,00 | -192,00 |
| UR HORNIDURAKO TASAK | 3000000 | 4.695.508 | 4.657.879 | 37.629,00 |
| ALTAK ETA HARGUNEAK | 3000001 | 85.000 | 85.000 | 0,00 |
| ERREKARGUAK ETA PREMIAMENDUAK | 3921000 | 40.000 | 34.000 | 6.000,00 |
| BERTZELAKO DIRU-SARRERAK | 3999000 | 100 | 100 | 0,00 |
| ARAZKETAKO TRANSFERENTZIA –NILSA– | 4530000 | 1.271.219 | 1.212.030 | 59.189,00 |
| DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK –EEZB– | 4508000 | 220.247 | 206.093 | 14.154,00 |
| DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK –NEZ– | 4511000 | 67.017 | 67.017 | 0,00 |
| UDALEN TRANSF. –TEDER-TP– | 4622001 | 165.366 | 152.950 | 12.416,00 |
| GORDAILUEN INTERESAK | 5200000 | 52.025 | 59.405 | -7.380,00 |
| ARAZTEGIRAKO DIRU-LAGUNTZA | 7530000 | 866.000 | 356.000 | 510.000,00 |
| HORNIDURA, DIRU-LAGUNTZA | 7508000 | 1.016.000 | 1.119.200 | -103.200,00 |
| SAREAK BERRITZEKO DIRU-LAGUNTZA | 7508001 | 205.100 | 139.300 | 65.800,00 |
| DIRUZAINTZAKO GERAKINA –URAK– | 8700001 | 0 | 474.800 | -474.800,00 |
| FINANTZA AKTIKOBAK –SMSA– | 8310000 | 135.000 | 255.000 | -120.000,00 |
| HIRI HOND. ZERBITZUA | | 1.711.549 | 2.634.771 | -923.222 |
| HIRI HONDAK. BILTZEA | 3020000 | 1.592.423 | 1.599.799 | -7.376,00 |
| BESTELAKO DIRU-SARRERAK | 3999001 | 100 | 100 | 0,00 |
| DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK –NEZ– | 4511001 | 45.216 | 17.154 | 28.062,00 |
| GORDAILUEN INTERESAK | 5200001 | 16.810 | 23.120 | -6.310,00 |
| DIRUZAINTZAKO GERAKINA –HONDAK.– | 8700002 | 0 | 937.598 | -937.598,00 |
| FINANTZA AKTIKOBAK –SMSA– | 8310001 | 57.000 | 57.000 | 0,00 |
| ZOLATZE ZERBITZUA | | 680.000,00 | 311.000,00 | 369.000,0 |
| TRANSF. UDALEI ZOLADURA | 7622000 | 680.000 | 311.000 | 369.000 |
| 2018ko EKITALDIKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA | | 11.210.131,000 | 11.764.545,00 | -554.414,00 |